

Berbenak: udako perrejila

Hernanin ez omen dago berbenero jendea besterik. *Izotz*, *Trakets* eta *Laiotzeko* kideekin hitzeging dugu udako gauetan sorgintzen gaituen mundu horretaz.



Berbenek gauetz eta ilunpean izan behar omen dute derrigor.

Egungo egoerari begira, berbenak maldan behe-
ra doaz. Batetik tabernak jan dio lekua plazari: "herriak diskoteka bihurtu dira. Taberna bakoitzean dago musika, fokoak eta dantza egiteko lekua" dio Axintxiok. "Eta jendeak nahiago du diskoa entzun zuzeneko kontzertutara jo baino" Pelloren ustez.

FESTAK BEHERA

"Auzotako festa asko galtzen ari dira, Hernaniko auzoak ikusi besterik ez dago. Zikuñaga eta Karabeleko festak joan ziren, Sorgintxuloak ere hor nonbait, eta Etxeberrikoek bide bera daramate. Antolatzen lan asko egin behar da eta inork ez du busti nahi" Xabiren arabera.

MODA KONTUA

"Trikitixak indar handia hartu zuen berbenetan duela urte batzuk. Orain trikiti talde asko

desagertu dira eta badirudi *Hemendik* aten gisako taldeak daudela modan" gogorarazi du Xabik. "Aparra bezala da: hasieran oso gora igotzen dira

EÑAUT AIERTZA:

“ Berbenek behera egin dute, nahiz eta asteburuetan oraindik eutsi.”

taldeak, eta urte gutxi batzuren ostean jaitsi" azaldu du Pellok.

HERNANIKO KASTA

Herrian baditugu 5 talde, eta beste hernaniar askok kanpoko taldeetan jotzen du. "Zaletasuna pizteko Oialumek eragin handia izan du.

Toki gutxitan dago astero zuzeneko kontzertuak entzuteko aukera" nabarmentzen du Pellok. "Bestalde ez da kasualitatea talde denak auzoetakoak izatea. Auzoetan bizi garenek inguruko herrietako festetara mugitzen ohituta gaude. Kaletarrak herritik ia atera gabe, tabernetan eta beste giro batean mugitzen dira" Xabik dionez.

EUSKERAZ BLAI

"Triste da guk euskara hutsean jo eta inguruko txosna eta taberna denetan erdal musika entzutea" Axintxiorentzat. "Guk erabaki genuen tabernetan entzuten diren erdal kantak bere horretan kantatzea" aitortzen du Pellok. *Trakets*ek, berriz, nahiago du letrak euskaratu edo bestela ez kantu horiek jotzea. Eta Xabik dionez, "Laiotzekook hasieratik garbi uzten diegu antola-tzaileri ez dugula erderaz ezer joko." □



Axintxo Barrenetxea
Trakets

“ Mugitu ere egiten ez den jendearen aurrean jo baino nahiago dut atxurrean aritu edo behie azpiak ateratzea.”



Xabier Barrenetxea
Laiotz

“ Betiko kantu zaharrek mugitzen dute gehien jendea, bai lehen, orain eta hamar urte barru berdin”



Pello Gorrotxategi
Izotz

“ Hernani festetarako ikaragarria da, baina Tilosetako berbenek pena ematen dute.”

PELOTA

Oiaga eta Mendiak 22 eta 15 irabazi zieten Esnal eta Oregiri

Bi hernaniarrek *saltsa* jarri zuten aurreko kuadroetan.

ARABAKO (barka aurreko akatsa) Ribavellosa herrian jendeak gozatu egin zuen pelota partiduan. Mendia *zakur zaharrak* airea ondo kendu zuen; hor egon zen partiduko kakoetako bat. Oiaga eta Esnalek aurrean partidua nahastu zuten, jendearen

pozerako, eta biek egin zituzten tanto politak.

GAUR SEGOBIAN

Esnal-Bazeta Zabala-Olidenen aurka eta Oiaga-Alonso Oharrarteta-Zubilagaren aurka ariko dira gaur La Matilla herrian 17:30etan. □

TXIRRINDULARITZA

Gaur hernaniarrak Soraluzen

Goizeko 10etan hasiko da 54 Soraluzeko Saria.



Zenbaitek nahiago du patxadan ibili.

JUBENIL mailako txirrindulariek *Soraluzeko Saria* korrituko dute gaur, goizeko 10:00etatik eguerdi aldera arte. Kaikuko hernaniarrak bertan izango dira.

GOGORRA

Ez da karrera makala: 101 kilometroko bidea dute helmugaraino, eta tartean Des-kargako portu bihurria igo beharra. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK

Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Ford Escort Familiarra Turbo Diesela	SS-AV
Ford Mondeo Turbo Diesela- Haize egokitua	SS-AV
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 306 Turbo Diesela-Llantak-H.egokitua	SS-BB
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Suzuki '4 X 4'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...

TXEMA TABERNAKO ERAKUSKETAK

Inguruko artisten 'karta'ra

Txema tabernak inguruko jendearen lanak izaten ditu urte osoan zehar. Anparo Serranorena azken egunetan da.



Zerbait hartuz kuadroak ikusteko aukera dago.

TXEMA tabernan ohitura bihurtu da inguruko jendearen lanak agertzea. Paretetan zintzilik jendearen kuadro edo bestelako lanak egoten dira nahi duenak ikusi eta erosteko.

HILEAN BAT

Normalean hilero aldatu ohi da erakusketa. Egile bakoitza txanda eskatu eta zerrendan egongo da ordua iritsi zain. Horrela, bere lanak jendeari bistarazteko aukera izango du;

ordainetan tabernako dekorazioak ukitu ezberdina hartuko du aldiero.

ARTISTA UGARI

"Harrigarria da horrelako gauzak egiten dituen zenbat jende dagoen" esan digu Josetxo tabernariak "baina, lanak bistarazten dituenak jakin behar du ez dela guztien gustoko izango. Zenbaiti oso ona iruditzen zaiona txarra amorratua irudituko zaio beste zenbaiti" erantsi dio.

ANPARORENA ALDATZEAR

Uztailaz gero, Anparo Serranok lore lehorrekin egindako koadroak daude paretetan. Datorren astean-edo aldatzeko asmoa dute, eta orduan jakingo dugu erreleboa nork hartuko duen.

Inguruan esku onekorik balego, badaki: Txematik pasa eta izango du bere abilezia erakusteko aukera. Hori bai, agian piskatxo bat itxaron beharko du. □

HITZ BITAN

ASFALTATZE LANAK

Etzi Elkano, Portale Txoko, Lizeaga eta Atzieta kaleak asfaltatzen hasiko dira. Udaltzainek kartelak jarriko dituzte nondik norakoak adierazteko. Ondoren, Zikuñaga eta Sagastialderen txanda etorriko da abuztuaren 21etik 25era bitartean. □

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



Argazkia: U. Agirre

KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri. **Aurreko astekoa:** Etxeberri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Saria:** urte bukaeran gehien asmatu dituzten bientzat *Kronikaren* urteko bilduma.

TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Aizpuru**
Latxunbe Berri, 11.
☎ 943 553582
- ▶ Gauez: **Tanco**
URNIETA San Juan, 36
☎ 943 550942

ASTEARTEA

- ▶ Egunez: **Irigoyen**
Elkano, 2
☎ 943 55552087
- ▶ Gauez: **Irigoyen**
Elkano, 2
☎ 943 55552087

ASTEAZKENA

- ▶ Egunez: **Gomez**
Nagusia, 15.
☎ 943 554892
- ▶ Egunez: **Gomez**
Nagusia, 15.
☎ 943 554892

Zure publizitatea hemen

HERNANIKO
kronika

☎ 943 330899

kronika@topagunea.com

A G E N D A

Astelehena

❖ GOIZUETAKO FESTAK

⇒ 12:00 Jaien hasiera: itxaferoa, trikitilariak, erraldoi eta buruhandiak..
⇒ 00:00 Gaupasa *Gozategirekin*.

❖ DONOSTIAKO FESTAK

⇒ 17:30 Ume festa: *Hanka Gorri* taldea Saguesen.
⇒ 20:30 *La Donostiarra* banda Bulebarrean.
⇒ 23:30 Kontzertua: Idi Bihotz, Kashbad eta Asgarth Saguesen.
⇒ 20:30 *La Donostiarra* banda Bulebarrean.

Asteartea

❖ GOIZUETAKO FESTAK

⇒ 8:00 Entzierroa.
⇒ 12:30 Bonba japonesak umeentzat opariekin.
⇒ 12:30 Pelota partiduak: gazteak aurrena. Gero Agesta eta Martinez Eulate, Baleztena eta Errastiren aurka.
⇒ 00:00 Dantzaldia: Sakanako trikitilariak.

❖ DONOSTIAKO FESTAK

⇒ 18:30 Pailazoak eta musika Katalunia plazan.
⇒ 20:00 *Eskola* dantza taldea Konstituzio plazan.

Asteazkena

❖ GOIZUETAKO FESTAK

⇒ 12:00 Hego Amerikako musika: *Arantxa eta Pantxo*.
⇒ 18:00 Zezenak.
⇒ 19:30 Pelota partiduak: ASPE enpresako pilotari profesionalak.
⇒ 00:00 Dantzaldia: *Trakets*.

❖ DONOSTIAKO FESTAK

⇒ 18:00 Baleta: *Sara Barasen* konpainia Kurasaalean.
⇒ 00:00 Dantzaldia: *Izotz* Paseo Berrian.